

Sin./Fdo.: CONSUELO ALONSO VERGARA 2025-01-09
UMEEN ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE INFANCIA

Sin./Fdo.: MAITE DE ITURRATE IBARRA 2025-01-09
ADMINISTRAZIO-RAKO ETA GIZARTE SUSTAPENERAKO ZUZEND.NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE ADMINISTRACIÓN Y PROMOCIÓN SOCIAL

Sin./Fdo.: AMAIA ANTUXUSTEGI ZIARDA 2025-01-09
GIZARTE EKINTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL

Ahaldun nagusiaren FORU-DEKRETUA. Honen bidez, zuzeneko dirulaguntza eman zaio Peñascal SCoop. erakundeari, interes publiko eta sozialagatik, Amorebietako Tutoretzapeko Adingabeen Zentroko Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabeentzako oinarritzko gaitasunei buruzko aldez aurreko prestakuntza-programa garatzeko 2024ko ekitaldian

DECRETO FORAL de la diputada general por el que se concede una subvención directa por razones de interés público y social a Peñascal SCoop. para el desarrollo del programa hasi de formación previa en competencias básicas para menores de edad tutelados por la Diputación Foral de Bizkaia del Centro de Menores Tutelados de Amorebieta, en el ejercicio 2024.

Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko Legeak bere 1. artikuluan ezartzen du gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak jasotzeko eskubidea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatuz.

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 1 establece el derecho a las prestaciones y servicios sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal.

Gizarte-zerbitzuen sistema gidatu behar duten printzipioen artean, unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitateaz gainera, azpimarratzekoak dira hurbiltasuna, prebentzioa, gizarteratzea eta normalizazioa, laguntza pertsonalizatua eta integrala eta laguntzaren jarraitasuna, esku-hartzeen diziplinartekotasuna, koordinazioa eta lankidetzak, gizarte ekimenaren sustapena, herritarren partaidetza eta kalitatea.

Entre los principios por los que se debe guiar el sistema de servicios sociales, destacan, además de los de universalidad, igualdad y equidad, los de proximidad, prevención, integración y normalización, atención personalizada e integral y continuidad de la atención, carácter interdisciplinar de las intervenciones, coordinación y cooperación, promoción de la iniciativa social, participación ciudadana y calidad.

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 22ko 135/2022 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Egitura

El Decreto Foral 135/2022, de 22 de noviembre, de la Diputación Foral, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura





Organikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 1. artikuluan ezartzen du sail honi dagokiola, bertako foru-diputatu titularren zuzendaritzapean, gizarte-zerbitzuen arloan indarrean dagoen ordenamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari aitortzen dizkion eskumenak baliatzea.

Orgánica del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, establece en su artículo 1 que a este departamento, bajo la dirección del diputado o diputada foral titular del mismo, le corresponde el ejercicio de las competencias reconocidas a la Diputación Foral de Bizkaia por el vigente ordenamiento jurídico en materia de servicios sociales.

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 3. artikulua xedatutakoaren arabera, ekimen sozialeko elkarteek osatuko dute sektorea (elkarte horiek ezaugarri hauek dituzte: izaera pribatua dute; irabazi-asmorik gabekoak dira; parte-hartzea sustatzen dute, boluntariotza sustatzen dute, eta gizarte zibilaren parte dira eta gizarte zibiletik eta gizarte zibilerako sortzen dira); elkarteok EAEn dituzte egoitza eta jarduera, eta haien helburu nagusia da gizarte-inklusioa, garapenerako lankidetzeta eta gizartean egoera ahulean, baztertuta, desberdin tratatuta edo babesgabe dauden edo desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona, familia, talde, kolektibo eta komunitateen eskubideen erabilera eraginkorra sustatzea.

La Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi dispone, en su artículo 3, que el tercer sector está compuesto por aquellas organizaciones de iniciativa social (es decir, organizaciones de carácter privado, no lucrativo, participativas, de acción voluntaria, que forman parte de la sociedad civil y surgen de ella y para ella), con sede y actividad en la CAPV cuya finalidad principal es promover la inclusión social, la cooperación al desarrollo y el ejercicio efectivo de los derechos de las personas, familias, grupos, colectivos o comunidades que afrontan situaciones de vulnerabilidad o exclusión, desigualdad, desprotección, discapacidad o dependencia.

Horrez gainera, legearen zioen azalpenean esaten da euskal administrazio publikoak hirugarren sektore sozialarekin elkarlanean aritzen direla, honako hauek sustatzeko: boluntariotza, elkarrekiko laguntza eta partizipazio soziala; (...) eta bestelako interes orokorreko jarduera sozial batzuk, biztanleria guztiaren inklusio sozialaren alde erakundeek gauza ditzaketenak.

Asimismo, la exposición de motivos de la ley añade que las administraciones públicas vascas colaboran con el tercer sector para fomentar el voluntariado, la ayuda mutua y la participación social (...) y para otras actividades sociales de interés general que las organizaciones lleven a cabo en aras a lograr la inclusión social de toda la población.

Bestalde, Foru Administrazioaren diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikulua xedatzen du, dirulaguntzak zuzenean eman daitezkeela egiaztatzen baldin bada deialdi publikoa egitea eragozten duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk daudela.

Por otra parte, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone, en su artículo 20.2.c), que podrán concederse de forma directa aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.





Peñasal Scoop. ekimen sozialeko erakunde bat da, irabazi-asmerik gabea eta onura publikokoa deklaratu. Bere helburua da gizartean integratzea hainbat inguruabar pertsonal, akademiko edo sozialengatik baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonak, kualifikazio profesionala sustatuz, erantzukizuneko eta elkartasuneko balio eta jarrerekin, pertsonak burujabe eta protagonista aktibo izan daitezen, beren bizitzetan eta gizartean.

Peñasal Scoop-ek betetzen ditu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Foru Administrazioak dirulaguntzaren onuradun izateko ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duenak, 12. artikuluan ezarritako baldintzak.

Pertsonen integrazioan lan egiten du, batez ere desabantaila-egoeran daudenengan, prestakuntza eta kualifikazio profesionalaren bidez, lan-aktibazioaren bidez, enplegua sortuz, eta elkartasun- eta herritartasun-jarrerak eta -balioak sustatuz.

Hasi Programaren helburu nagusia da Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren tutoretzapean dauden 144 adingabe gazteri alde aurreko prestakuntza ematea oinarritzko gaitasunetan, 450 ordu inguru, batez ere hizkuntza-gaitasunean eta lanbide-gaitasun errazetan, benetan bokaziodun sentitzen diren lanbideetan enplegura bideratutako lanbide-heziketako ibilbide bat hasteko aukera emango diena.

Kasu honetan, egokitzen jotzen da PEÑASCAL SCOOP-ARI BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR euroko (218.270 €) dirulaguntza bat ematea, hark egiten duen jarduerak sortzen duen gizarte-interesa ikusita.

Peñasal Scoop. es una entidad de iniciativa social, sin ánimo de lucro y declarada de utilidad pública, cuyo propósito se centra en integrar en la sociedad a personas que están en situación o en riesgo de exclusión por diversas circunstancias personales, académicas o sociales, promoviendo una cualificación profesional, con valores y actitudes de responsabilidad y solidaridad, para que las personas sean soberanas y protagonistas activas, en sus propias vidas y en la sociedad.

Peñasal Scoop. cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.

Trabaja en la integración de las personas, especialmente aquellas en situación de desventaja, mediante la formación y cualificación profesional, activación laboral, la creación de empleo, así como el fomento de actitudes y valores solidarios y de ciudadanía.

El objetivo fundamental del programa “Hasi” es ofrecer a 144 jóvenes menores de edad tutelados por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia una formación previa en competencias básicas, en torno a 450 horas, especialmente la competencia lingüística, y competencias profesionales sencillas que les posibilite comenzar un itinerario de formación profesional encaminado al empleo en aquellos oficios en los que realmente se sientan vocacionados.

En el presente caso, se considera oportuno conceder a PEÑASCAL SCOOP. una subvención de DOSCIENTOS DIECIOCHO MIL DOSCIENTOS SETENTA euros (218.270 €) dado el interés social que genera la actividad a realizar por la misma.





Bestalde, 5/2005 Foru Arauaren 9. artikuluan bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, Foru Aldundia, ahaldun nagusia edo foru-diputatuak izango dira 20.2.c) artikuluan araututako dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak, arauz ezarritako muga kuantitatiboen arabera. Zehatzago, 5/2005 Foru Araua garatzeko diru-laguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12.2.a) artikuluan xedatzen duenaren arabera, ahaldun nagusiari dagokio 320.000 euro baino handiagoak ez diren dirulaguntzak edo laguntzak ematea. Ildo berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian (foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testuategina), ezartzen da helburu horretarako aurretiaz aurrekontuko diru-izendapena egonda ahaldun nagusiari dagokiola laguntzak edo dirulaguntzak ematea haien zenbatekoa 320.000 euro edo gutxiago bada..

Ondorioz, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta idazki hau sinatzen dutenek proposatuta, hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA.- PEÑASCAL SCOOP-ri (IFZ: F-48537518) zuzeneko dirulaguntza ematea, interes publiko eta sozialagatik, **BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR eurokoa (218.270 €)**, 2024ko aurrekontukoa, Amorebietako Tutoretzapeko Adingabeen Zentroko Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabeentzako oinarritzko gaitasunei buruzko aldez aurreko prestakuntza

Por otra parte, el artículo 9 de la citada Norma Foral 5/2005, en su apartado segundo, señala que los órganos competentes para conceder las subvenciones reguladas en el artículo 20.2.c) serán la Diputación Foral, el diputado o la diputada general y los diputados y las diputadas forales en función de los límites cuantitativos que se establezcan reglamentariamente. Precisamente, el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, en desarrollo de la Norma Foral 5/2005, determina en su artículo 12.2 a), que corresponde al diputado o diputada general la concesión de subvenciones o ayudas que no superen los 320.000 euros. En el mismo sentido, la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del THB, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, que determina que la concesión de subvenciones o ayudas, previa consignación presupuestaria para este fin, y corresponde al diputado general cuando su cuantía no supere los 320.000 euros.

Por todo ello y en virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en el artículo 12 del Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y a propuesta de los que suscriben,

DISPONGO

PRIMERO.- Conceder y abonar a la **PEÑASCAL SCOOP.**, con NIF F-48537518, una subvención directa por razones de interés público y social por importe de **DOSCIENTOS DIECIOCHO MIL DOSCIENTOS SETENTA euros (218.270 €)** del presupuesto del ejercicio 2024 para atender a los gastos derivados de la realización durante el 2024 del programa hasi de formación previa en competencias básicas para menores de edad tutelados por la





programak 2024an izandako gastuei aurre egiteko.

Diputación Foral de Bizkaia del Centro de Menores Tutelados de Amorebieta.

BIGARRENA.- Diru-kopuru hori 2020ko ekitaldiko aurrekontu-partida honen kargura ordainduko da:

Ekonomikoa: 45100
Programa: 231105
Organikoa: 0302
PEP zk.: 2010/0003

SEGUNDO.- La mencionada cantidad se abonará con cargo a la partida presupuestaria siguiente del ejercicio 2024:

Económico: 45100
Programa: 231105
Orgánico: 0302
Nº PEP: 2010/0003

HIRUGARRENA.- PEÑASCAL SCOOP-k bete egin beharko ditu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak, eta ezin da sartuta egon artikuluko horren bigarren zenbakian jasotako debeku-egoeretakoez ezein ere.

TERCERO.- PEÑASCAL SCOOP. deberá cumplir los requisitos establecidos por el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo y no incurrir en ninguna de las prohibiciones del apartado segundo del citado artículo.

Gainera, PEÑASCAL SCOOP-k, bere ahalmenaren arabera eta ematen dituen zerbitzu guztietan eta antolatzen dituen ekitaldi zein jarduera guztietan, laguntza eman beharko du pertsona guztien autonomia oztopatzen duten arkitektura- zein komunikazio-hesiak ezabatzeke, bereziki mugikortasun urritua, komunikazio-zailtasunak edo edozein muga psikiko zein sensorial (aldi baterako zein betiko) dituzten pertsonen autonomia oztopatzen duten hesiak.

Además, PEÑASCAL SCOOP. deberá, en la medida de sus posibilidades, y en todos los servicios que preste, así como en los eventos o actividades que organice, colaborar en la eliminación de las barreras arquitectónicas y de comunicación que permitan el uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y, en particular, por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial, de carácter temporal o permanente.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuarenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauak ezarritakoa ezertan eragotzi gabe. Hala ere, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inola ere gaintitu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

CUARTO.- Las subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, conforme al artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.





BOSGARRENA.- PEÑASCAL SCOOP-k konpromisoa hartzen du dirulaguntza 2024. urtean erabiltzeko, foru-dekretu honetan jasotako helburuetarako. **2025. urteko lehenengo hiruhilekoaren barruan** egin behar du justifikazioa, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoarekin bat; horretarako, dokumentu hauek aurkeztu behar ditu Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuan:

Jarduketa-memoria bat, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen dituela justifikatzeko; bete behar diren baldintza horien artean, foru-dekretu honen hamaikagarren puntuan ezarritako zabalkunde-betebeharrak sartuta daude. Halaber, lortutako emaitzak, haien erabilgarritasuna eta eragin soziala zehaztuko dira.

Hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko dio urtean guztira zenbat pertsonak jaso duten arreta, sexuen arabera bereizita eta ematen zerbitzu bakoitzeko.

Memoria ekonomiko bat, diruz lagundutako jardueren kostua justifikatzeko. Gutxienez ere **gastuen egoera-orri bat** izan behar du memoriak, non diruz lagundutako jardueraren gastuak eta inbertsioen zerrenda jasotzen den, sailkapena eginda eta antolatuta. Zerrendan, hauek identifikatu behar dira: hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Horrez gainera, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste **diru-sarrerako edo diru-laguntza batzuk** adierazi behar dira; haien zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira. Memoria hau egokitu egingo da eta, gutxienez ere, ebazpen honen I. II. eta III. eranskinetan adierazitako datuak jasoko dira.

Dirulaguntzaren xedea betetzeko egin diren gastuen **jatorrizko fakturak**. Halaber, **dokumentu horien fotokopiak ere aurkeztu beharko dira**, dirulaguntza eman duen

QUINTO.- PEÑASCAL SCOOP. se compromete a dar uso de esta subvención durante 2024 para los fines que se han recogido en el presente Decreto Foral, debiendo justificar la utilización del importe de la subvención **dentro del primer trimestre del año 2025**, tal y como establece el artículo 60 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, mediante la presentación en el Servicio de Infancia del Departamento de Acción Social, de los siguientes documentos:

Memoria de actuación justificativa del cumplimiento del objeto y de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, incluidas las obligaciones de difusión establecidas en el punto undécimo del presente Decreto Foral. Asimismo, se detallarán los resultados alcanzados y su utilidad e impacto social.

Concretamente, facilitará a la Diputación Foral de Bizkaia, la información sobre el número total de personas atendidas durante el año, con desagregación por sexos para cada uno de los servicios que prestan.

Memoria económica justificativa del coste de las actividades subvencionadas. Dicha memoria deberá incluir al menos un **estado de ingresos y gastos**, con relación clasificada y ordenada de los gastos e inversiones de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. Asimismo, deberá indicar **otros ingresos o subvenciones** que hayan financiado la actividad subvencionada, indicándose su importe y procedencia. Esta memoria se ajustará e incluirá, al menos, los datos reflejados en los anexos I, II y III que se acompañan a la presente resolución.

Facturas originales referentes a los gastos efectuados en el cumplimiento del fin de la subvención. Asimismo, deberán **presentar fotocopias de dichos documentos, a efectos de**





organoak **alderatu ahal izateko** eta, ondoren, jatorrizko dokumentuak itzuli ahal izateko.

su cotejo por parte del órgano concedente y posterior devolución de los documentos originales.

SEIGARRENA.- Hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egindako beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

SEXTO.- Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

ZAZPIGARRENA.- Diruz lagundutako jarduera ezin izango da inola ere azpikontratatu.

SÉPTIMO.- La actividad objeto de la subvención no podrá ser subcontratada.

ZORTZIGARRENA.- PEÑASCAL SCOOP-k egunean beteta eduki behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2.e) artikuluan ezarritakoarekin bat; horrez gainera, foru-arau horren 12. eta 13. artikuluetan ezarritako gainerako baldintza eta betebeharrak bete behar ditu.

OCTAVO.- PEÑASCAL SCOOP. deberá estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, conforme establece el artículo 12.2. e) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, así como cumplir el resto de requisitos y obligaciones establecidos en los artículos 12 y 13 de la citada Norma Foral.

BEDERATZIGARRENA.- PEÑASCAL SCOOP-k, hala badagokio, aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera dituen kontabilitate- eta erregistro-betebeharrak bete beharko ditu.

NOVENO.- PEÑASCAL SCOOP. deberá cumplir las obligaciones contables y registrales que, en su caso, pudieran corresponderle en función de la legislación mercantil que le sea de aplicación.

HAMARGARRENA.- Erakunde onuradunak programaren finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egin beharko dute. Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudia jasoko da diruz lagundutako programa publikatzen duten karteletan, oroitzeko plaketan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan eta entzunezkoetan, edo diruz lagundutako programa dela-eta balio bera duten aipamenak egin beharko ditu komunikabideetan, edo horretarako neurri egokiak hartu.

DÉCIMO.- La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación del programa. Así, deberá incluir la imagen institucional de Diputación Foral de Bizkaia en los carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales en los que publicite el programa subvencionado, o bien realizar menciones en medios de comunicación u otras medidas que resulten adecuadas al objeto subvencionado y de eficacia equivalente.

Bestalde, erakunde onuradunak, Gizarte Ekintza Sailak eskatuta, ebazpen honen esparruan egiten diren ekitaldi eta jardunaldi guztiei buruzko informazioa emango du,

Por otra parte, la entidad beneficiaria facilitará, a petición del Departamento de Acción Social, toda aquella información sobre actos y jornadas que se celebren en el marco de la





Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabideen bitartez zabal dadin.

Era berean, PEÑASCAL SCOOP-k Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta eskusibitaterik gabe lagako dio diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.

HAMAIKAGARRENA.- Erakunde onuradunak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete behar ditu.

Beraz, Peñascal SCoop-k agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeak diskriminatzen dituen irudiak edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio hauek islatzen dituen: berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.

Diruz lagundutako jardueraren ondoriozko jendaurreko agerpen guztietan euskara erabili beharko du Peñascal SCoop-k.

Peñascal SCoop-k bi hizkuntza ofizialak erabili beharko ditu bere jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituen liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan.

HAMABIGARRENA.- Foru-dekretu honetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako betebeharrak edo baldintzak ez betetzeak ekarriko du jasotako diru-kopuruak eta, hala denean, dagozkien legezko interesak itzuli beharra, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan xedatutakoaren arabera, ezertan eragotzi gabe ezar daitezkeen zehapenak.

presente resolución al objeto de su divulgación por los medios de comunicación de la propia Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, PEÑASCAL SCOOP. cederá, con carácter gratuito y no exclusivo, a la Diputación Foral de Bizkaia el derecho de utilización de la información técnica y gráfica contenida en la documentación justificativa de la subvención para su divulgación y/o publicación en cualesquiera medios y formatos bibliográficos, audiovisuales, informáticos o que permitan el uso de la técnica.

UNDÉCIMO.- La entidad beneficiaria debe cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Así, Peñascal SCoop. en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales utilizados, deberá emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Peñascal SCoop. deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía, Peñascal SCoop. deberá utilizar las dos lenguas oficiales.

DUODÉCIMO.- El incumplimiento de los requisitos y obligaciones establecidas en el presente Decreto Foral y demás normas aplicables, dará lugar a la obligación de reintegrar las cantidades percibidas así como los intereses correspondientes, en los casos que proceda, conforme a lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, sin perjuicio de las sanciones que





correspondan.

HAMAHIRUGARRENA.- Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru-erakundeak errekerimendurik egin gabe.

DECIMOTERCERO.- De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, la entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzuli den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76 del Decreto Foral 34/2010 y en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

Onuradunak berak eskatuta foru dirulaguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori dirulaguntzaren kudeaketaz arduratu den foru zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia. Itzuli behar den dirulaguntza ere aipatu behar da.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia persona beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio foral gestor de la subvención. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

HAMALAU GARRENA.- Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde onuraduna behartuta dago lankidetzan aritzera eta foru-administrazioko organoek zein finantza-kontrolaren arloko eginkizunak dituzten organoek eskatzen dioten dokumentazio guztia aurkeztera.

DECIMOCUARTO.- En virtud del artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la entidad beneficiaria estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación le sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como por los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

HAMABOS GARRENA.- Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluak ezartzen du dirulaguntzen arloan zer egite eta ez-egite diren arau-hauste administratibo, bai eta zer zehapen aurreikusten diren eta nor diren erantzuleak ere.

DECIMOQUINTO.- El Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, establece las acciones y omisiones que constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones, así como las sanciones previstas y las personas responsables.

HAMASEI GARRENA.- Erakunde onuradunak, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik, laguntza ematen duen

DECIMOSEXTO. La entidad beneficiaria podrá solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la





erakundeari eskatu ahal izango dio dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa materialak edo denbora-aldaketak egiteko. Aldaketok baimena izango dute baldin eta beharrezkoak badira jarduera ondo gauzatu ahal izateko, betiere dirulaguntzaren helburua edo xedea aldatzen ez bada.

HAMAZAZPIGARRENA.- Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikuluan eta 3. artikuluari lotuta 9.1 g) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiak eta PEÑASCAL SCOOP-k bide telematikoen bidez argitaratu behar dituzte dirulaguntzak, bakoitzak bere gardentasunaren atarian, goitza elektronikoan edo web-orrian.

HAMAZORTZIGARRENA.- Ebazpen honetan aurreikusten ez den guztirako aplikatzekoak izango dira Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua (haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina), Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua, eta arloan aplikagarri den beste edozein xedapen.

HEMERETZIGARRENA.- Foru-dekretu hau PEÑASCAL SCOOP-ri jakinaraztea, eta beronen berri ematea Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

actividad subvencionada, modificaciones materiales o temporales de la resolución de concesión, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención.

DECIMOSÉPTIMO.- Conforme con lo dispuesto en el artículo 2 y en el artículo 9.1 g) en relación con el 3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia y PEÑASCAL SCOOP. publicarán las subvenciones que suscriban por medios telemáticos, en sus respectivos portales de transparencia, sedes electrónicas o páginas web.

DECIMOCTAVO.- Para todo lo no previsto en la presente resolución será de aplicación la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral; el Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo; el Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del THB, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria; la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi; la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

DECIMONOVENO.- Notificar el presente Decreto Foral a PEÑASCAL SCOOP. y dar traslado del mismo al Servicio de Fiscalización del Departamento Foral de Hacienda y Finanzas.

Umeen Zerbitzuko Burua. La Jefa del Servicio de Infancia. CONSUELO ALONSO VERGARA
Administrazioarako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendari Nagusia. Directora General de
Administración y Promoción Social. MAITE DE ITURRATE IBARRA





PROBIDENTZIA/ PROVIDENCIA: Ontzat ematen dut aurreko proposamena, horrekin ados nago. Ondorios, aurkez bekio ahaldun nagusiari foru dekretua eman dezan/ Presto mi visto bueno y conformidad a la propuesta antecedente y, en consecuencia, elévese a Decreto foral de la Excm. Sra. Diputada General.

Gizarte Ekintzeko foru diputatua. La Diputada foral de Acción Social. AMAIA ANTJUSTEGI ZIARDA

Aurreko txostenak onartzen dira eta, ondorioz, horietan proposatzen denaren arabera ebazten da/ Se aceptan los anteriores informes y, en consecuencia, se resuelve de conformidad a lo que en ellos se propone

Ahaldun Naguia. La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

